TAUGRESEK OSTEGUNEAN JOKATUKO DUEN PARTIDUA ERABAKIGARRIA DA KOPAN SARTZEKO

J.J. Anderson fitxaje berriak Leonen egingo du estreinakoa

Mitchell Keith Anderson ('J.J.' esaten diote) da Taugresek Green eta Rivasen lesioak direla-eta epe laburrean fitxatu behar izan duen bigarren atzerritarra. Andersonek hegal postua eskuratu du eta Nicola eta Reyes pibot lanetara zuzenduko ditu Manel Comasek.

Karmele Jaio / **Gasteiz**

J. ANDERSONEK 35 urte ditu ta partiduko puntu askoko baz bestekoa betetzeko gai dela adierazi dute Taugreseko itutiek. Pibot zein hegal gisa jokaseko aukera du Andersonek. Hala eta guztiz ere, badirudi Manel Comasek hegal postura zuzenduko duela amerikarra, Marko Nicola eta Miguel Angel Reyes zonako barrualdera bidaliz, pibot lanetara hain zuzen ere.

Esperientzia handiko jokalaria da. NBAn, Utah Jazz eta Philadelphia Sixers taldeekin jokatu du eta Europan Italia eta Greziako ligetan. Italiako ligan saskibailerik garrantzitsuenaren sari lortu zuen. Manel Comasen iritzitara ere jokatu du lehengo: Comasek CAI Zaragoza taldea zuzentzen zuenean 91-92 denboraldian. Orduan ACBko fitxajerik garrantzitsuenetako bat izan zen, baina zorte txarra izan zuen, lesio ugariren ondorioz 16 partidu besterik ez baitzituen jokatu. Ondorioz, Gerald Paddiok hartu zuen bere lekua.

Bradleyko Unibertsitatean helbutako jokalaria da eta Philadelphiak *draft*-aren bigarren errolean aukeratu zuen, 13 partiduan jokatu zuelarik. Orduan, Utah taldeak fitxatu zuen eta talde honetan bi denboraldi oso jokatu ondoren Italiako ligako Liberti Firenze taldera pasatu zen. Talde honekin lortu zuen saskiratzaile onenaren titulua.



Baliteke Ramon Rivas datorren astean bertan itzultzea kantxetara.
OLALDE

Orain arte bere jaioterria den Chicagoko ligan ari zen jokatzen eta horretan argi utzi du hegal zein pibot lanak ondo bete ditzakeela.

Beraz, Taugresen egun jokatzeko moduan dauden atzerritarrak Velimir Perasovic, Goran Sobin eta J.J. Anderson dira. Andersonek Leonen kontrako partidua jokatuko du Taugres Baskoniarekin.

Leonen kontrako partidua erabakigarria izango da. Taugresek irabazi egin beharko du, Errege Kopa jokatzeko txartela lortu nahi badu. Bi plaza geratzen dira Errege Koparako eta hauek Estudiantes, Taugres eta Leonen artean erabaki behar dira. Baina Comasen taldeak kontuan izan beharko du Anway Zaragozak Barcelonaren kontra jokatu behar duen partidua ere. Taugresek sailkatzea errazagoa izan dezan Zaragozak galdu egin beharko du.

Rivasen lesioa hoberantz doa • Taugreseko sendagileen zerbitzuaren arabera, Rivas hobera egiten ari da. Puerto Ricoko pibota sorbalda minak hobetzeko ariketa bereziak egiten hasi zen herenegun eta asteartean hasiko da taldearekin entrenatzen. Ostegunean Leonen kontrako partiduan jokatzeko prest egotea espero du Gasteizko klubak.

Comasek Sala kritikatu du

ORAIN artean Manel Comasek David Salaren kasuaren inguruan adierazpen argirik egin nahi izan ez badu ere, isiltasuna apurtu eta gogor ekin du Taugreseko entrenatzaileak jokalari kataluniarraren kontra. Comasen iritziz, «Salak ez du Taugresen elastikoa janzterik merezi».

Comasek ez du Sala taldean nahi. Baseak izandako diziplina gabeko jarrerak taldearen funtzionamendua okertzen duela esan du. Comasek adierazi duenez, «Salak ez du hasieratik klubeko sendagileek eskatutakoa bete».

Comas bat dator klubeko zuzendaritzarekin Salak ez dituela sendagileen gomendioak bete esatean. Honetaz gain, Comasen ustez Salak ez du saskibaloi jokalari profesional baten jarrera: «Gauetan hortik zehar ibiltzen da eta hori ez da lesionaturik dagoen jokalari profesional batek hartu behar duen jarrera».

Honekin batera, Taugreseko gainontzeko jokalari eta talde guztiarekin izan duen jarrera salatu du entrenatzaileak: «Partizanen kontrako partiduaren bideoan argi ikusten da galtzen ari ginen bitartean bera barrezka zebilela aulkian». ✗

Bosmanen auziak saskibaloian izan dezakeen eragina aztertuko du FIBAk

Europako futbola astindu ondoren saskibaloiaren ordua izan daiteke

Erredakzioa / **Donostia**

BORISLAV STANKOVIC FIBAko aldazkari nagusiak atzo adierazi zuenez, erakunde honek Europako Auzitegiak *Bosman auziaren* inguruan harturiko erabakiaren ondorioak aztertuko ditu, saskibaloian eragina izango duen edo ez jakiteko. «Aurrena sententziaren edukiaren zain egongo gara, ondo aztertu ahal izateko, eta gero saskibaloiarentzat irtenbide bat bilatzen saiatuko gara. Sententzia horrek zerbait aldatzen badu, aldatu egingo da, legea delako».

Serbiarrak balizko ondorioetako bat aurreratu zuen. «Jokalariei behin kontratua amaitutakoan ez dago arazorik saskibaloian, baina atzerritarren arazoari dagokionez, konponbidea bilatu beharko da. Agian, Europako Batasuneko federazioek dituzten eskubideak Europa osoko federazioei zabaldu beharko zaizkie». Dena den, aurtengo denboraldia amaitu arte ez da inolako aldaketarik izango.

Bestalde, Europako Ligari buruz ere mintzatu zen serbiarra. 1996-97 denboraldiko Europako Liga ez omen da izango oraindik NBAren antzeko liga bat. «Hori lortu ahal izateko beharrezkoa litzateke FIBA eta Europako klub, liga eta federazioen arteko akordioa. NBAren moduko liga batek ezin du aurrera egin partaideek beren federazioetako ligetan parte hartzen badute. Gainera, dena zentralizatu beharra dago. 1996-97 denboraldiko liga aurrerapauso bat da, baina ez benetako liga».

Serbiarrak onartu egin zuen Jugoslavia ohiko taldeek ez dutela maila onik eman txapelketa honetan, nahiz eta Jugoslavia izan Europako azken txapelduna. «Horrek esan nahi du lan egiteko denbora eman behar zaiela». Europako txapelketetan epaileak egiten ari diren lanaz ere mintzatu zen, bide onetik doazela esanez. ✗

ATHLETIC CLUB BILBAO

SAN MAMES FUTBOL ZELAIA

(Larunbatean, urtarrilak 6, 20:30etan)
Liga Txapelketa, 1. Maila

ATHLETIC CLUB - REAL SOCIEDAD

KLUBAREN EGUN ERDIA

Zuzendaritza Batzordeak partidu honekin batera Klubaren Egun Erdia egitea erabaki du eta, hortaz, partidu honetara joan nahi duten bazkide jn./and. ekindarreango bazkide txartela aurkeztu ondoren, partidurako dagokien txartela eskuratu beharko dute zelaira sartu ahal izateko.

TXARTEL SALMENTA

BAZKIDEAK: SAN MAMES FUTBOL ZELAIKO TXARTELDEGIAK
EGUNAK: 26, 27, 28 eta 29, 30, larunbata
ORDUTEGIA: 10:30etatik 13:30etara eta 17:00etatik 20:00etara
10:30etatik 13:30etara

Futbol zelaira sartu ahal izateko sarrera aurkeztu beharko da karneta eta txartelarekin batera.

ERAMALEARENTZAKO URTEKO ABONUDUNAK (Gainontzekoen Prezioak)

Goian aipaturiko txarteldegi, egun eta orduetan futbolaldiko abonu txartela aurkeztuz.
AIPATU EGUNETAN JASO GABE GELDITUTAKO TXARTELAK SALGAI JARRIKO DIRAGAINONTZEKOENTZAT.

TXARTELEN LAGAPENA

Partidu honetara etorriko ez diren Bazkide jn./and.ek euren eskubideak beste pertsona bati laga diezazkiokete, baina honek lagatako bazkide txartelari dagokion sarrera eta ZELAIRA SARTZEKO OSAGARRIA ere eskuratu beharko ditu txarteldegietan (San Mames Futbol Zelaia), Bazkide jn./and.entzat adierazitako egunetan.
Osagarrien prezioak honako hauek dira:
Tribuna 2.500 pta.
Aurrealdeko Zenbakituak 2.000 pta.
Zutikako Hego Harmaila 1.000 pta.

GAINONTZEKOAK - SAN MAMES FUTBOL ZELAIKO TXARTELDEGIAK

Zutik, Tribunetan eta Zenbakituetan egoteko txartelak Bazkide ez direnentzat
Asteartetik, hilak 26, Bazkideentzat goian adierazitako ordutegian.
Txartel mota guztiak
Asteartetik, urtarrilak 2, 10:30etatik 13:30etara eta 17:00etatik 20:00etara.

PREZIOAK

Jarlekuak	Bazkideak	Gainontzekoak
Beheko eta Goiko Tribuna Nagusia	2.600	7.000
Beheko eta Goiko Ekialde Tribuna	2.300	6.000
Ekialde Tribunako Palkua	–	6.000
Beheko Iparralde eta Hegoalde-Tribunak	2.300	6.000
Goiko Hegoalde eta Iparralde-Tribunak	2.300	6.000
Iparralde eta Hegoaldeko Zatiak	2.300	6.000
Aurrealdeko Ekialde eta Iparralde-Tribuna Estaliak	–	6.000
Alboko eta Ekialdeko Aurrealdeak	2.000	5.000
Hegoaldeko Zutikako Harmaila	1.000	3.000
Iparraldeko Zutikako Harmaila		3.000
Haurrak (14 urte bitarte)		500
18 urtetik beherakoak (abonudunak):		
Alboko eta Ekialdeko Aurrealdeak		2.000
Hegoaldeko Zutikako Harmaila		1.000

Azken uneko jende pilaketak ebitatzearren, txartela eskuratu nahi duten Bazkide jn./and.ei horiek salgai jarri eta aurreneko egunetan jasotzeko eskatzen zaie.